



Jesus-ec gurutzean esandaco

ZAZPI ITZAC

LEENENGO ITZA.

Aita, barca zayezu, bada, zer diarduten-ere ez dakite. (LUC. 23,34.)

Gizonagatic gurutze baten
 Eriotzaco tranzean
 Jarri ziñaden, Jesus maitea,
 Oñaze-samiñ artean.....
 Gure-pecatu larriacgatic,
 Arren, iguzu damua:
 Barca gaitzatzu, zure mereziz
 Izan-dezagun zerua.

BIGARREN ITZA

Gaur nerekiñ-paradisuan izango zera, (LUC. 23, 43)

Zerua iriki zinion, Jesus
 Gizadi guzti-danari,
 Escañitzean paradisua
 Betico lapur-onari;
 Fede bizi ta obra onakiñ
 Egizu gu an sartzea,
 Goza-dezagun zurekin beti
 Zoriona ta pakea.

IRUGARREN ITZA

Emacumea orra zure semea; ona emen zure Ama
 (JOAN. 19, 26-27)

Emanik, Jesus, gurutzetic zuc
 Gure amatzat Birjiña,
 ¿Nola zuregan guc ipiñi ez
 Ichodomena chit piña?

Bay igure Jesus maite-maitea!
Gure-ondana Zu-zera,
Birjiña-Amaren-bidez iguzu
Zeruetaco sarrera.

LAUGARREN ITZA.

Ene Jaincoa, ene Jaincoa; ¿zergatic utzi nazu? (MAT. 27, 46).

Bacar-bacarric gure-amorez
Gurutze baten josia
Egon ziñaden, Jesus maitea,
Aitarengandic utzia;
Eramangura andi bat, Jesus,
Arren, iguzu penetan,
Zere ondoan argi-gaitezen
Gero Zeruko pozetan.

BOSTGARREN ITZA.

Egarri-naiz. (JOAN. 19, 28).

Anima danac salbatuzeco
Egarriz zaude penatzen,
Ta oyen ondoren, *Jesus Jaincoa*,
Beti ziñaden necatzen;
Arren, iguzu zeru-gauzaen
Gose ta egarri berdiña,
An zu maitatzen beti egoteco
Izan gaitean gu diña.

SEIGARREN ITZA.

Bucatu-da. (JOAN. 19, 30).

Iztoki-eder gurutzecotik
Diozu dala bucatu
Jaincozco obra, gizonen zorrak
Or dituzula kitatu.
Egin gaitzatzu, Jesus-gozoa,
Ezker oneko zugana,
Eta lagundu, egin dezagun
Zeruratzeko bear-dana,

ZAZPIGARREK ITZA.

Aita, zere escubetan lajatzten det nere izpiritua. (LUC. 23, 46).

Gugatic, *Jesus*, emanic Aita
 Beticoaren escuan
 Eriotza ta bizitza, danoc
 Sar nai-gaituzu Zeruau.
 Lagun-gaitzatu, Jaungoicoaren
 Nayera oso-jartzeco;
 Ori ederki beteric geugan,
 Zeruetara joateco. (Amen).

JOSÉ IGNACIO ARANA.

JESU-CRISTO-K GURUTZEAN ESAN ZITUEN

azkeneko zazki-itzak.

«.... Baziran ya arratsaldeko irurak, eta eguerdi ezkerro, iñoiz ere ikusten etzan bezelako, eta naturalezaz kanpora zati eclipse edo eguzkiaren illuntisun arrigarri batekin mundu guzia zegoan illunpean, eta doloz edo lutoz janzirik bezela; eta orduan Jesu-Cristo-k, zein pena eta oñaze arrigarriak zeramazkian aditzera eman nai izan zuen, eta deadar andi batekin bere Aita Eternoari esan zion: «Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa; zergatik desanparatu nazu?» *Deus meus, Deus meus, quare dereliquisti me?*

Gure pekatuak gatik, Aita Eternoak nai izan zuen bere seme mai-teak, inozentea zalarik, ainbeste sufritzea, eta bere Aitaren borondatea egiteagatik semeak nai izan zuen gure zorra ain garesti pagatu.

Eta zein biziro deseatzten zuen gure erremedioa aditzera emateko, urrengo itzan esan zuena au da, *sitio*, negarriak nagon; eta ala egarri ori etzan bakarrik gorputzarena, baita ere zan animarena edo espi-ituarena. Era egarri zala aditu ziobenetatik batek bereala esponja bat ozpiñetan busti eta kañabera luze batekin aora eman zion,